BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

952

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 31koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Ingeteam Technology SA erakundeari Emakumeen eta Gizonezkoen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakunde izateko emandako aitorpena baltzu-izen berrira egokitzeko dena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2009ko abuztuaren 10eko Ebazpenaren bidez, aukera-berdintasunerako lankidetza erakunde izateko aitorpena eman zitzaion ArcelorMittal SA erakundeari (irailaren 29ko EHAA, 183. zk.).

Geroago, Ingeteam Power Technology SA sozietateak Ingeteam taldeko zortzi enpresa xurgatu ditu, horien artean Ingeteam Technology SA.

Ondorioz, aurkeztutako eskabidea eta aldaketa egiaztatzeko aurkeztu diren agiriak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2009ko abuztuaren 10eko Ebazpenaren bidez Ingeteam Technology, SA erakundeari emandako aitorpena -emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetza erakunde izatekoa- egokitzea, alegia: aitorpen hori «Ingeteam Power Technology SA» entitatearen produkzio-unitateari emandakotzat ulertu behar da, ondorio guztietarako.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka, interesdunek berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean emango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 31.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.